

PLE 26-OCT-23 (2/CP)

« IKUSIRIK Alkatetzaren 2023ko apirilaren 25eko 4/SG ebazpenaren bidez onetsitako 2022ko aurrekontu-likidazioa, non 2022ko Diruzaintzako Geldikinak kuantifikatzen baitira; ikusirik langileria-gastuetarako kredituaren beharra justifikatzen duen Haur Eskolen txostena; ikusirik Aurrekontuen eta Azterlanen Bulegoaren txostena, zeinean aurrekontu egonkortasunari buruzko indarreko araudia betetzen den aztertzen baita, eta ikusirik gastu orokorretarako eta aurrekontu-aldaketen inguruan diruzaintzako geldikinen erabilerari buruz indarrean dauden arauak, honako hau ERABAKITZEN DA:

1.- Kreditu-sorrera onestea 2023ko **Iruñeko Udalaren** aurrekontuko 80/32310/410000 partidan (Haur Eskolak – Transferentzia arrunta erakunde autonomoei), 419.227,35 euroko zenbatekoarekin, Nafarroako Gobernuak Haur Eskolendako emandako dirulaguntzen bidez finantzatuta (diru-sarrerren 20/45030 partida).

2.- Kreditu-sorrerak onestea **Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren** 2023ko aurrekontuan, 419.227,35 euroko zenbatekoarekin, Iruñeko Udalaren ekarpena (Haur Eskolen aurrekontuaren diru-sarrerren 71/40000 partida) zenbateko berean handituz finantzatuak, honako xehetasun hauekin bat:

PARTIDA	PARTIDAREN DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA
71/32310/120090	Funtzionarioen oinarritzko ordainsariak	42.778,30
71/32310/131001	Lan-kontratudunen oinarritzko ordainsariak	34.222,64
71/32310/131090	Haur Eskoletako ordezkapenentarako ordainsariak	142.594,34
71/32310/160000	Gizarte Segurantza	199.632,07

3.- Kreditu gehigarriak onestea **Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren** 2023ko aurrekontuan, 315.772,65 euroko zenbatekoarekin, Haur Eskolen Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikinen bidez finantzatuak, honako xehetasun hauekin bat:

PARTIDA	PARTIDAREN DESKRIBAPENA	ZENBATEKOA
71/32310/120090	Funtzionarioen oinarritzko ordainsariak	32.221,70
71/32310/131001	Lan-kontratudunen oinarritzko ordainsariak	25.777,36
71/32310/131090	Haur Eskoletako ordezkapenentarako ordainsariak	107.405,66
71/32310/160000	Gizarte Segurantza	150.367,93

4.- Aldaketa hauei aplikatzen ahalko zaie indarreko aurrekontua betetzeko oinarrietako 10.aren 8. apartatua, aurrekontu-aplikazio berriak sortuz gero gastuaren behin betiko egozpenean.

5.- Indarrean dagoen aurrekontuaren 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, erabaki honetako 3. puntuan onetsitako aldaketak jendaurrean jartzea hamabost egun naturaleko epean, erabakia Iruñeko Udalaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik aitzina. Hasiera batean onetsitako aldaketa horietakoren baten kontra jendaurreko epean erreklamazioak aurkezteak berekin ekarriko du Osoko Bilkurak berariaz egin behar izatea behin betiko onespena, indarra har dezaten, baina behin betiko

berariazko onspen hori ez da beharrezkoa izanen erreklamaziorik jaso ez duten aldatetek indarra har dezaten.